



EROSKI TALDEAK ETA HAREN BEZEROEK 200.000 EURO BIDERATU DITUZTE VENEZUELAKO LURRIKARAK ERASANDAKOEI LAGUNTZEKO

- **Espainiako Gurutze Gorriaren bitartez igorri dira funtsak larrialdiari handik bertatik erantzuten laguntzeko.**
- **Bezeroek emandakoaz gain, EROSKI Taldeak ekarpen gehigarri bat eginez osatu du bildutakoa.**

Elorrio, 2026ko uztailaren 15a.- Venezuelan erregistratutako lurrikara suntsigarriak erasandakoei laguntzeko [EROSKI](#) Taldeak bultzatu duen larrialdiko elkartasun kanpainari esker, 200.000 euro bildu dira. Bezeroek egin dituzte dohaintzak, eta kooperatibak ekarpen gehigarri bat egin du.

Ekainean erregistratutako bi lurrikara indartsuak herrialdearen iparraldean izan dira, eta hondatu egin dituzte etxeak, funtsezko azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak; hala, guztiz zaurgarri gelditu dira milaka lagun. Hori ikusirik, EROSKI Taldeak ezohiko kanpaina bat abiatu du joan den hilean, kontsumitzaileek borondatezko dohaintzak egin ditzaten, saltokietako ordainlekuetatik pasatzean nahi duten kopurua emanaz. Aurreko elkartasun kanpainetan bezala, bezeroen ekarpenei esker bildutakoaz gainera, EROSKI Taldeak ekarpen gehigarri bat egin du.

Espainiako Gurutze Gorriaren bidez igorri dira funtsak, han ari baita Venezuelako Gurutze Gorriarekin batera biztanlerian dauden premia larrienei erantzuten: larrialdiko ostatuak jartzen laguntzen, osasun arreta ematen, edateko ura helarazten, oinarrizko artikuluak banatzen eta babes psikosoziala ematen.

"Ikusirik gure bezeroek beste behin erakutsi duten elkartasuna, agerian da EROSKI Taldea osatzen duten pertsonen nolako konpromiso handia duten. Gure eskerrik zintzoenak deialdi honi erantzun diozuenei, honek modua emango baitu larrialdi honetan suertatu diren milaka familiari ataka gaitzetik ateratzen laguntzeko. Gure eskertza, era berean, Espainiako Gurutze Gorriari, laguntza gehien behar duenari arin helarazten laguntzeagatik", esan du **Alejandro Martínez Berriochoak**, EROSKI Taldearen Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendari eta EROSKI Fundazioko zuzendari nagusi denak.

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO – Prentsa bulegoa
Silvia Peralta

Tel: 917 379 950

*"Eskerrak eman nahi dizkiegu EROSKI Taldeari eta kanpaina honetan parte hartu duten guztiei, Venezuelako lurrikarek erasandakoei laguntzeko emandako babesagatik. Elkarlan honi esker, giza laguntza areagotzen jarraitu ahalko dugu, eta bizimodua gehien okertu zaien premiarik larrienei erantzuten", **Jaime Gregori, Espainiako Gurutze Gorriko Dirubilketa, Aliantzak eta Gizarte Erantzukizuneko zuzendari nazionala.***

EROSKI Taldeak lehen ere eginak ditu horrelako ezohiko kanpainak bezeroekin eta EROSKI Fundazioarekin batera, krisi humanitarioei eta hondamendi naturalei erantzuteko. Azken urteetan, kooperatibak zenbait larrialditarako mobilizatu du laguntza; horien artean, DANA Espainian, Turkiako eta Siriako lurrikarak, Marokoko eta Libiako uholdeak, Ukrainako krisi humanitarioa eta larritasun bereziko beste egoera batzuk. Horrek jende ahulenaren alde erakusten duen konpromisoa sendotzen du.

EROSKI Taldeari buruz

EROSKI Taldea banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste jarduera batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.